



BizkaiaGara Sariak 2025, inplikazioa eta herritarren konpromisoa aitortzeko sariak

Mutur Beltz proiektua, Piñaburu Elkarteak eta Clementine Baza sarituak izan dira Enkarterriko BizkaiaGara Sarietan

Abenduaren 5ean, ostirala, ospatzen den Boluntarioen Nazioarteko Egunaren bezperan, Zalla Zinema Antzokiak BizkaiaGara Sarien hirugarren edizioa hartu zuen. Sariak Enkarterriko bost proiekturen inplikazioa eta herritarren konpromisoa aitortu eta saritu zituzten.

BILBO, 2025eko abenduaren 4a - Abenduaren 5ean ospatzen den **Boluntarioen Nazioarteko Egunaren** bezperan ospatu zen BizkaiaGara Sarien hirugarren edizioa, Zalla Zinema Antzokian. Bertan, erakunde, kirol, enpresa, kultura, gizarte eta ingurumen arloko pertsona ugari bildu ziren, bai eta BizkaiaGara, BBK, Bizkaiko Foru Aldundia eta EDE Fundazioaren hiru erakunde sustatzaileetako ordezkariak ere.

Ekitaldiari hasiera emateko, Enkarterri eskualdeko Harribitxi taldearen emanaldia izan zen. **BizkaiaGara Sarien lehen Aipamen Berezia Juan Luis Laskurainek** jaso zuen, Gordexolako alkate, diputatu eta Enkarterri Groupeko Ohorezko Presidente izandakoak. Juan Luis Laskurain ekonomiaren eta eskualdearen aurrerapenaren bultzatzaile handia izan da, eta Enkarterriekin duen lotura eta konpromiso-maila ukazina da.

Bigarren aipamen berezia Soineko elkartearentzat izan zen. Ekitaldian azaldu zen bezala, Gueñesko Soineko elkarteak 65 urte daramatza paperezko soinekoak diseinatu eta egiteko ohiturari eusten. Bere lehiaketa internazionala izan zen, herria mapan jarri zuen eta elkarteko kide diren emakumeek lanean jarraitzen dute.

BizkaiaGara Sariak, proiektua, elkarteak eta ibilbidea

BizkaiaGara Saria, Proiektu kategorian, artisautza, kultura eta berrikuntza uztartzen dituen **Mutur Beltz** ekimenarentzat izan zen. **Laurita Silesek eta Joseba Andoni Edesak** Karrantzako ardia berreskuratu dute eta artileekin hainbat jantzi egiten dituzte. Azkenaldian oso sarituak izan dira egiten ari diren lan berritzaileetatik eta nola ez, BizkaiaGara Sariak ere euren ahalegina aitortu nahi izan zuten.



Entitatearen modalitatean, Lanestosako Piñaburu elkarteak izan zen saritua. Herriaren eragile kultural eta soziala delako, eta antzina herrian haur txikiek abesten zituzten *marza* kantua berreskuratu dituelako. Horrez gain, mendian ibilaldiak eta Aste Santuko jarduerak antolatzen dituzte. Elkarte hori oso beharrezkoa da herriak gero eta gehiago husten diren garaiotan.

Azkenik, **Clementine Bazak**, Nos Unimos Nous Unisons elkartearen sortzaileak, saria jaso zuen **Ibilbide modalitatean**, dedikazioaren eta konpromisoaren erreferente eta eredu izateagatik. Baza Kongoko gerratik ihesi iritsi zenetik, Bizkaira iristen diren pertsonen integrazioaren alde lan egin du, eta Kongoko herrikideen bizi-kalitatea hobetzen ere saiatzen da, material informatikoa emanaz edo eskolak sortuz.

Saritutako pertsonak eta erakundeak hautatzeko prozesuaren barruan, BizkaiaGara Sariak 2025eko Batzorde Mistoak honako sei pertsona hauek osatu dute: Enkarterriko Mankomunitateko lehendakari Martín Pérez Garmendia; enpresa-sektorearen ordezkari gisan Jose Miguel Aranzabal; kulturaren arlotik Iker Álvarez, musika-irakasle eta Harribitxi Taldeko kidea; hezkuntzatik kide Bego Maite Jimenez de San Viator eta komunikazioaren sektoretik Nagore Aburruzaga.

Informazio gehiagorako edo elkarrizketetarako
komunikazioa@bizkaiaagara.eus
944161511 – 688 66 05 99